



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko martxoaren 13a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatzeko lege-testu berri bat igor dezan Parlamentura, legebiltzar honek onesteko. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuteran kiroldegi berri bat eraiki dezan. Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da familiei lagun egitera, gurasotasun positiboa landuz egoitza-harrera espezializatuan, oinarrizko egoitza-harreran eta autonomia-prozesuan dauden adingabeen kasuan. Eskubide Sozialetako Batzordeak ezetsi egin du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Vespa velutina” espezie exotiko inbaditzailea dela-eta Nafarroako Gobernuak 2015etik gaur arte egin dituen jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, Sarrigurengo institutu berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, Azagrako ikastetxe publikoan 25 ikasle baino gehiagokoak diren bi ikasgela bikoizteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Galdera, ohe-planifikazioari eta ohiko ospitaleratzez bestelako aukerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—Galdera, armariak, intsigniak, plakak eta beste objektu batzuk kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

- Galdera, Foruaren Hobekuntzan aitortzen diren eskumenak edukiko balitu trafikoko isunen kontzeptua dela-eta Nafarroari legokiokeen diru-bilketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, etxebizitzaren erosketarako hipoteka berrien sinatzeak % 13,1 behera egin izanari buruz Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratu dituen datuak azaltzeko azterketei eta arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiko erabakia, zeinaren bidez behin-behineko langileen ordainsariak Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko C mailako langile funtzionarioen eta kontratudunen proportzio berean igoko baitira. (17. or.).
- Nafarroako Parlamentuak “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SMP” izeneko sozietateko administrazio kontseilurako izendatu beharreko hiru kideak hautatzea. Hautagai-proposamenak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko martxoaren 12an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledunak eskatu du Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2018ko martxoaren 22ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2018ko otsailaren 21eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatzeko lege-testu berri bat igor dezan Parlamentura, legebiltzar honek onesteko.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko martxoaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatzeko lege-testu berri bat igor dezan Parlamentura, legebiltzar honek onesteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniain jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, eztabaidatu eta bozkatzeko:

2017ko abenduaren 21ean, Legebiltzarraren Osoko Bilkurak lege proiektu bat onetsi zuen Geroa Bai, Podemos, Bildu eta IEren botoekin. Kontseilariak Osoko Bilkuran erabilitako hitzen arabera, proiektuaren xedea da "Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 5eko 72/2017 epaia betetzea, konstituzioaren aurkako eta deusez deklaratu baititu lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren hiru artikulua (lagunartean, plusbalioaren gaineko zerga gisa ezagutzen da).

Oposizioaren ustez, lege proiektu hori berandu eta zergadunen kaltetan izapidetu zen, ematen

zientzien aukera bakarra baitzen epaitegietara jotzea, baldin eta Administrazioak bidegabeki kobratutakoa berreskuratu nahi bazuten.

Hiru hilabete doi joan dira lege labur hori onetsi zenetik, eta auzitegiek dagoeneko zalantzan jarri dituzte legearen oinarriko alderdiak. Izan ere, Gobernuak igorritako legea onetsi zenetik, zergadunei konponbideren bat eman ordez, babesgabeago daude orain, eta handiagoa dute ziurgabetasun juridikoa.

Alde batetik, epaileek konstituzio-kontrakotasuneko arazoa aurkeztu dute, uste baitute legetestuak urratu egiten duela Botere Judizialak beharrezkoa duen independentzia. Ondorioz, geldiarazi egin dira ukitutako herritarrek ilegalki kobratu zaizkien zenbatekoak berreskuratzen saiatze aldera abiarazitako prozedura guztiak.

Gainera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak epaia eman du, zeinaren bidez deklaritzen baitu oraintsu onetsitako legeak ezarritako baldintzetan zerga kobratzea ilegala dela.

Horregatik guztiagatik, erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du albait urgenteen igor diezaion Parlamentu honi beste lege-testu bat, lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatzen duena, halako moduan non herritarrei orain ez daukaten segurtasun juridikoa emanen baitzaie eta aipatu zerga dela-eta egin behar ez ziren ordainketak egitera behartuta egon diren zergadunen mesedetan egiten baita, zuzenbidearen arabera ez izateagatik.

Iruñean, 2018ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniain

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Tuteran kiroldegi berri bat eraiki dezan.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko martxoaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Tuteran kiroldegi berri bat eraiki dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak bere gain har dezan Tuteran kiroldegi berri bat eraikitzea.

Tuterari kirola egiteko espazioak falta zaizkio gaur egun. Gauzak horrela, ia ezinezkoa da datak antolatzea hiriko talde guztiek entrenatu eta jokatu ahal izateko.

Gainera, zaila da aire zabalean entrenatu ohi duten taldeek kiroldegi estali batera eraman ahal izatea beren jarduerara, eguraldiak horretara behar-tzen duenean.

Bestalde, oztopoak daude espazio hori kirolgintzarako (saskibaloia, eskubaloia, areto-

futbola, eta abar) erabiltzeko interesa duten kirolariei berori alokatzeko, okupazioa ehuneko ehuneko da-eta.

Horri guztiari gehitu behar zaio Erriberan dagoen elite nazionalako talde bakarrak instalazio duin batzuk edukitzeko premia larria duela, jokatu ahal izateko moduan dagoena, etxeko partidak jokatzeke Tuteratik irten behar izatea ekidite aldera.

Hori dela-eta, Tuterako Udalak proiektu bat onetsi zuen Ciudad de Tudela kiroldegia berri-tzeko, 833.762 euroko aurrekontu aurreikusiare-kin. Halere, azken informazioen arabera, erreformaren kostua ia 1,5 milioi euroraino igo daiteke (aurreikusitakoaren bikoitza, ia). Eta ezin da baz-tertu zenbateko hori are handiagoa bihurtzea.

Agertoki ekonomiko berri hori ikusita, arrazoiz-koa ematen du hausnartzea planteatutako behar-rrizan guztiei aurre egiteko instalazio bat eraiki-tzearen egokitasunaz.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki propo-samen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bere gain har dezan Nafarroako bigarren hirian kiroldegi berri bat urgentziaz eraikitzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Ribera de Navarra areto-futboleko taldearekin batera zuzemenak egin ditzan ligaren aitzinean, obrak bukatu bitarte-an Ciudad de Tudela kiroldegian jokatzen jarraitu ahal izan dezan.

Iruñean, 2018ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotore-na

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da familiei lagun egitera, gurasotasun positiboa landuz egoitza-harrera espezializatuan, oinarrizko egoitza-harreran eta autonomia-prozesuan dauden adingabeen kasuan.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2018ko martxoaren 6an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: “Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da familiei lagun egitera, gurasotasun positiboa landuz egoitza-harrera espezializatuan, oinarrizko egoitza-harreran eta autonomia-proze-

suan dauden adingabeen kasuan”. Mozioa Mónica Doménech Linde andreak aurkeztu zuen eta 2017ko apirilaren 12ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2018ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, *Vespa velutina*” espezie exotiko inbaditzailea dela-eta Nafarroako Gobernuak 2015etik gaur arte egin dituen jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Rubén Velasco Fraile jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, *Vespa velutina*” espezie exotiko inbaditzailea dela-eta Nafarroako Gobernuak 2015etik gaur arte egin dituen jarduketei buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 27ko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza


ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du 2015etik gaur arte *Vespa velutina* delakoarekin egin diren lanei buruz eta Asiako liztorra behar bezala kontrolatzeko erabilitako neurrien eraginkortasunaren gaineko balorazioari buruz (9-17-

/PES-00243). Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusitik helarazi dioten informazio hau ematen dio:

Nafarroako Gobernuak zer jarduketa egin ditu (trampak jartzea, habiak zaindu, aurkitu eta kentzeko neurriak, bai eta dibulgazio eta kontzientziazio neurriak ere) 2015etik gaur arte, *Vespa velutina* espezie exotiko inbaditzailea dela-eta?

Asiako liztorra, *Vespa velutina*, 2010ean sartu zen Nafarroan. Urte horretan bi habi ikusi ziren, eta azkar hedatu zen: 65 habi ikusi ziren 2011n eta 95 habi detektatu eta deuseztatu ziren 2012an. 2013an eta 2014an kopuruak behera egin zuen, 59 eta 41 habi hurrenez hurren. Gero, berriz egin zuen gora kopuruak 2015ean (115 habi); 2016an, berriz, kopuru handienera iritsi zen: 181 habi. 2017an, beheranzko joera egon da, hurrengo irudiko lerro etenekin islatu dugun bezala:



Honako hauek dira 2015ean egindako jarduketak:

1.- Basozaintzako langileek zuzenean deuseztatu dituzte landa-eremuetan detektatutako habiak.

Hiri-guneetako kanpoko aldeetako habiekin buruzko komunikazioa jasota, barruti desberdinetako basozainek berrikuspina egiten dute, eta baldin eta ikusten badute oraindik ere nabarmen aktibo daudela, deuseztatu egiten dituzte. 2010etik egin izan den lana da, eta oraindik ere funtsezko osagai bat da Nafarroan Asiako liztorraren aurkako borrokan.

Lan hori, funtsean, eskuz egiten da, habia plastikozko poltsa batean bilduz eta gero hura deuseztatuz. Hala eta guztiz ere, batzuetan, eskoleta bat erabiltzen da, edo intsektizida botatzen da. Deuseztatzerako metodologia ahal den guztian hobetzeko beste sistema batzuk testatu izan dira.

2.- Basozaintzak batera aritu da lanean habiak deuseztatze eskumena duten beste ente batzuekin; honako hauekin, hain zuzen:

a.- Beharrezkotzat jotzen dutenean Basozaintzaren laguntza eta lankidetzaren eskatzen duten udalak.

b.- Mankomunitateak edo udalek lan horretarako enkargatutako kolektiboak.

c.- Suhiltzaileak.

3.- Udalekiko, horietako arduradun teknikoekiko, agintaritzaren agenteekiko eta abarrekiko

informazio eta koordinazio lana, elkarrekin eraginkortasuna hobetzeko.

4.- Informazio publikoa Departamentuko telefonoen bitartez eta hedabideen parte-hartzearen bitartez, Nafarroan espezie honek duen egoera ezagutzera emateko.

5.- Erlezainekiko eta sektoreko erantzuleekiko harremana, eta erlauntzen egoeraren berrikuspina, Asiako liztorraren kolonizazio-esparruen aurreikuspena egiteko, balizko kalteak zenbates-teko eta haiek ahal den guztian gutxitzeko.

6.- Esperientzia edo harremanak landu hainbat teknikarirekin, neurri eraginkorak ezartzeko. Esate baterako, ahaleginak egin dira habiak eskoleta, sua erabiliz, intsektizidaz, eskuz (plastikoa erabiliz), silikonaz eta abarrez deuseztatze... Halaber, substantzia erakargarriak dituzten botilak probatu dira; harrapatze tranpak eta erlategiak babesteko esperientziak landu dira; pozoia aplikatu zaie harrapatutako aleei (troiarrak); kamera termografikoaren bidezko detekzioa probatu da...

7.- Detektatutako habien kokapenari buruzko datuak bildu dira, jokaera inbaditzailea aztertze eta espezieak Nafarroan izan den bilakaera aurreikusteko, eta detekzio goiztiarra egin eta deuseztatze.

8.- Inbasio-arriskuari buruzko iragarpen-mapak egin dira.

9.- Nazio mailan eta beste autonomia erkidego batzuekin lan egin da, lortutako informazioa elkarri emateko eta MAGRAMAK onetsitako "Españian Asiako liztorraren edo liztor beltzaren (*Vespa vetu-*

lina ssp. nigrithorax) kudeaketa, kontrol eta balizko deuseztatzerako estrategia” lantzeko.

10.- Koordinazio bilerak egin dira Nafarroako udalekin, Iruñerriko udalekin, Iruñerriko Ur Mankomunitatearekin, Abeltzaintzaren arloko albaitariek, Apidenako teknikariek, Osasun Publikoaren Institutuarekin, suhiltzaileekin eta Basozaintzarekin. Hainbat bilera izan dira, espeziearen aurkako jarduketa plan bat egiteko, hartu beharreko neurriak bateratuz eta baterako lan koordinatu eta eraginkorra egitea bideratuko duten koordinazio alderdiak erraztuz.

11.- “Asiako liztorraren edo liztor beltzaren (*Vespa vetulina*) aurkako jarduketa Plana” egin da Nafarroako lurralderako, aipatu berri dugun estrategia nazionalaren babesean.

Zer balorazio egiten da Asiako liztorra behar bezala kontrolatzeko erabilitako neurrien eraginkortasunari dagokionez?

Aipatu beharra dago Asiako liztorrak 2014ko amaierarako jada kolonizatu eta gairitu zuela Nafarroako hegoaldea. Errioxan 2014ko abenduan detektatu zen lehenengo habia, eta 2015ean beste zenbait. Gauza bera gertatu zen Huescako mugetan, zeinetara 2015ean iritsi baitzen. Horrenbestez, liztorrak jada Nafarroa osoa kolonizatu du. Hala eta guztiz ere, espeziearen eskakizun ekologikoak ikusita, Nafarroan bildu diren datuen arabera, zeinak oinarri izan baitira nazio mailako eredu egiteko, Foro Komunitatearen lurralde osoa ez da berdin egokia espezierako; izan ere, Asiako liztorra maizago egoten da toki heze eta epeletan klimatologia kontinentalekoetan baino, non udak eta neguak muturrekoak baitira eta hezetasuna txikiagoa baita. Horrek aukera ematen digu jartzeko ezen lurraldearen % 70 inguruan presentzia edo oso txikia edo deuseza izanen dela, baldin eta presentzia horretarako aukera handiagoa dagoen % 30 horretan jarduten badugu. Horrenbestez, detekzio goiztiarra eta deuseztatzea liztorrerako egokiagoak diren eremuetan zentratu behar dira, bereziki erdialdeko eta iparraldeko hiri-guneetan eta ibai handien bazterretako zuhaitzetan, ur-ibilgutik 250 m-ra bitarte, batez ere makaldietan eta

zumardietan. Une honetara arteko dinamikarekin jarraituz gero, gure ustez saihetsi ahalko da beste eremu batzuetara hedatzea. Esate baterako, aurren hegoaldeen dauden habiak, zeinak, gainera kasu berezitat jo baitira, Kasedako ibar-basoan aurkitutako bi eta Berbintzanako Argaren ibai bazterrean aurkitutako bat izan dira.

Azpimarratu beharra dago oro har espezie exotikoen aurka, eta berariaz Asiako liztorraren aurka, borrokatzeko gako parte-hartze koordinatua izan dela eta eta gaur egun ere badela. Hasiera batean operatiboaz suhiltzaileak eta basozainak arduratzen ziren nagusiki, baina pixkanaka sartzen joan da hiri-guneetan detektatzen diren habien kudeaketarako eta deuseztatzerako –funtsezko zereginetan– udalek duten ezinbesteko parte-hartzea, eta horrekin nabarmen handitu da eraginkortasuna. Gainera, betidanik herritarren parte-hartzea izan bada ere, norberaren udalari habien berri ematearen hurbiltasunak erraztu egin du parte-hartze hori, abisuen arrazionalizatzea eta orokorrean lortu den eraginkortasuna.

Gaur den egunean, landa-lurretako lana, hiri-guneetatik kanpo, Basozaintzaren egitekoa da; hiri-guneetako oinarritzko lana, berriz, udalena da –Departamentuaren aholkuarekin–, eta beti suhiltzaileak egoten dira horien guztien eskura, egiazki esku-hartze bereziren bat behar den kasuetarako. Harremanetarako telefonoetan dihardutenei, behar diren protokoloak eta informazioa eman zaizkie ente guztiak jakin dezaten zein eremutan egin behar duten lan handiena, zer metodologia erabili behar duten eta nola gauzatu behar diren koordinazio telefonikoa eta eskumenen koordinazioa liztorren ustezko presentziari erantzuna emateko eta herritar batek egindako aurkikuntza bideratzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko abenduaren 28an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Sarrigurengo institutu berriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sarrigurengo institutu berriari buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 27ko 145. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamenta-riari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-17/PES-00244 idatzizko galde-ra aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkun-tzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuak aurreikusi du Sarrigurenen Bigarren Hezkuntzako institutu berria eraikitzea. Horixe jakinarazi zion Eguesibar-ko Udalarari, kasua bazen ikastetxe hori kokatu beharreko lurzatiaren lagapena egin zezan. Udal horrek, 2017ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran, ECP1A (8.423 m²) eta DD14 (6.782 m²) lurzatiak lagatzeko erabakia hartu zuen, eta Hezkuntza Departamentuari eman zion jakitera.

2017ko martxoaren 24an, Asier Peláez More-no jaunak, Pablo Esquisábel Otamendi jaunak eta Franciso Javier Serna Pérez jaunak gora jotzeko errekurso bat aurkeztu zuten Nafarroako Admi-nistrazio Auzitegian aipatutako lurzatiaren Hezkuntza Departamentuari lagatzearen aurka.

Hezkuntza Departamentuak, bi lurzatiak azter-tu ondoren (ECP1A y DD14), jo zuen planeamen-duan aldaketa bat egin beharra zegoela, bi lurza-tiak bereiziko zituen oinezkoentzako bide bat sartzeko espazio hori eraiki nahi den azalera-n. Hartara, zenbait bilera izan ziren Lurraldearen Antolamenduko Zerbitzuarekin, eta aurreikusitako egutegia aztertu ondoren, erabaki zen ikaste-txearen lehen faseko proiektua ECP1A lurzatiari —bietatik handienari— egokitzea.

Lehen fasearen ezarpen berria ikusita, hasie-rako proposamena aldatzen baitzuen, apirilean kontratazio hori arautzen duten klausulen pleguak berrikusi eta irizpide jasangarriak zehaztu ziren, ia zero kontsumokoak.

Ekainean, lizitazioa izapidetzeko berme juridi-ko guztiak egiaztatu ondoren, laguntza kontrata-tzeko baimen-espeditentea izapidetu zen. Espe-diente hori Nafarroako Gobernuaren 2017ko uztailaren 26ko Erabakiaz onetsi zen, eta haren bitartez baimena ematen zitzaien Hezkuntza Departamentuko Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiari Sarrigurengo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu baterako proiektua egiteko eta obren zuzendari-tzarako kontratua egiteko. Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiko zuzendari nagusiaren 710/2017 Ebazpenaren bitartez, erreferentziako kontratazioa onetsi eta Kontratazio Atarian eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 40 eguneko epearekin (2017ko urriaren 2ra artekoa) eta 324.259 euroko gehieneko gastuarekin, BEZa barne:

– 210.870 euro (% 21eko BEZa barne), proiekt-ua idazteko ordainsariei dagozkie, eta “Ikastetxe berriak eraikitzea eta ikastetxeetan obrak egitea. Ikastetxeen Plana” izeneko 410001-41800-6020-325100 partidaren kargura ordainduko dira;

– 113.389 euro (% 21eko BEZa barne), berriz, obren zuzendaritzaren ordainsariei dagozkie, eta 2018. urterako aurrekontuetan izanen den “Ikaste-txe berriak eraikitzea eta ikastetxeetan obrak egi-tea. Ikastetxeen Plana” izeneko 410001-41800-6020-325100 partidaren kargura ordainduko dira.

Lizitaziora 17 proposamen aurkeztu dira, eta dokumentazio administratiboaren gutunazala ire-kita, aurkeztutako proposamen guztiak onartu dira. Gaur egun, Kontratazio Mahaia ikazendatuta-ko teknikariak proposamen guztia baloratzen ari dira.

Kontratazioaren behin betiko onespina eta aurkeztutako proposamenen kopuru handia ikusi-ta, egiaztatu zen ezin zela bete 2018-2019 ikas-turterako ikastetxe bat irekitzeko hasieran ezarri-tako egutegia.

Nafarroako Gobernuaren 2017ko urriaren 25eko erabakiaz, “Sarrigurengo Ekohiria” udalez gaindiko plan sektoriala azkendu zen, Eguesibar-ko Udalak hala eskatuta, zeren eta ia guztiz gau-zatua baitzen eta haren oinarritzako helburua bete-rik baitzegoen. Haren azkentzearen eraginkortasunerako baldintza zen udalez gaindi-ko plan sektorialaren zehaztapenak hirigintzako udal planeamenduan sartzea. Udalak lagatako

lurzatiek eraikin berria egin ahal izateko dokumentu hartan jasotako xedapenak bete beharko dituzte.

Hezkuntza Departamentuak aurreikusten du exekuzio-proiektua 2018. urtearen lehen erdialdean idaztea, eta udal lizentzia eskatzea. Gero, obrak lizitatuko dira, berehala egin daitezten. Horretarako ezarritako aurrekontu-aurreikuspenei dagokienez, honako hauek dira, urtez urte:

2018. URTEA:

– 210.870 euro (% 21eko BEZa barne), proiektua idazteko ordainsariei dagozkienak.

– 56.694,50 euro (% 21eko BEZa barne), arkitektoaren obra-zuzendaritzako ordainsariei dagozkienak.

– 38.688 euro (% 21eko BEZa barne), aparejadorearen zuzendaritzako ordainsariei dagozkienak.

2019. URTEA:

– 56.694,50 euro (% 21eko BEZa barne), arkitektoaren obra-zuzendaritzako ordainsariei dagozkienak.

– 38.688 euro (% 21eko BEZa barne), aparejadorearen zuzendaritzako ordainsariei dagozkienak.

Gainera, 6.417.474 euroko partida bat aurreikusten da, BEZa barne, zeina 2018ko eta 2019ko urteko ordainketen artean banatuko baita, obren exekuzioa bera egiteko. Zenbatekoen banaketa zehatza exekuzioaren data jakiten direnean egingo da.

Iruñean, 2017ko abenduaren 15ean.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuoko eluduna: María Solana Arana

Galdera, Azagrako ikastetxe publikoan 25 ikasle baino gehiagokoak diren bi ikasgela bikoizteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Azagrako ikastetxe publikoan 25 ikasle baino gehiagokoak diren bi ikasgela bikoizteari buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 27ko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-17/PES-00246 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Nafarroako Foru Komunitateko ikasleen eskolaratzeari buruzko araudiaren oinarria Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikotik abiatzen da, abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak sartutako aldaketekin. Oinarriz-

ko arauditik apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretua dator, zeinak ezartzen baititu unibertsitatez kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta itundutako ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko arauak, bai eta Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 4ko 8/2015 Foru Agindutik ere, zeinak onesten baititu Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Erdi eta Goi Mailako heziketa zikloetako ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozeduraren oinarriak. Biek, dekretuak eta foru aginduak, beren eguneratzeak izan dituzte.

Oinarrizko araudiak honako hau jasotzen du: hezkuntza administrazioek ehuneko hamar bitarte handitzen ahalko dute eskolatze eremu bakoitzeko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako gelako gehieneko ikasle kopurua, dela berandu eskolatzen diren ikasleen berehalako beharrei erantzuteko, dela familia unitatea aparteko eskolatze aldi bizilekuz aldatzearen ondorioz, gurasoetako edo legezko tutoretako edozeinen nahitaezko lekuz aldatzearen ondorioz.

Nafarroako Foru Komunitatean ikasleen onarpena arautzen duen foru dekretuaren 20. artikulua honako hau jasotzen du:

Departamentuak % 10 bitarte handitzen ahalko du gelako gehieneko ikasle kopurua, berandu eskolatzen diren ikasleen berehalako beharrei erantzuteko.

Oinarrizko araudiak horretara behartzen ez badu ere, Hezkuntza Departamentuak matrikulako epe berezian ezarritako ratioa gainditzen duten talde guztiak bikoizten ditu; kasu honetan, unitate bakoitzeko 25 ikaslekoa da ratioa, gobernu honek 2016-17 ikasturtean hezkuntzan ezarritako murrizketei buelta emateko ezarritako neurriei esker. Epe bereziaz harantzago, ez da taldearen bikoizte automatikorik gertatzen. Azagrako "Francisco Arbeloa" ikastetxe publikoaren kasuan lehen hezkuntzako 1. mailako eskolaratze berria inskripzio epe berezia amaitu eta gutxira gertatu zenez,

eta kontuan hartuta ikastetxe horrek zein errealitate soziali erantzuten dion, aparteko izaeraz onetsi zen irakasle erdi bat gehiago jartzea.

Zuzkidura horri esker, erantzuna ematen zaie ikasgelatik kanpo laguntza handiagoa behar duten ikasleei, talde murriztuetan, bai ingelesez, bai gaztelaniaz, astelehen, astearte eta asteazkenetan. Gainerako ikasleekiko integrazioa ostegun eta ostiraletan egiten da.

Horrenbestez, hezkuntza indartzeko neurrien funtzionamendu ona dela-eta eta ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aplikatzeko modua ikusita, ez da aurreikusten Azagrako "Francisco Arbeloa" ikastetxe publikoan hezkuntza baliabide berezi gehiago jartzea.

Iruñean, 2017ko abenduaren 15ean

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuoko elduna: María Solana Arana

Galdera, ohe-planifikazioari eta ohiko ospitaleratze bestelako aukerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Sergio Sayas López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ohe-planifikazioari eta ohiko ospitaleratze bestelako aukerei buruzkoa. Galdera 2017ko abenduaren 5eko 149. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariako foru parlamentari Sergio Sayas López jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00250) jakiteko ea Gobernuak ba daukan ohe-planifikazioari eta ohiko ospitaleratzeaz bestelako

aukerei buruzko dokumenturik. Hona Nafarroako Gobernuoko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Osasun Departamentuak "Ospitale-oheen plangintza" azterlanaren laburpen bat badauka, bai eta "Etxez etxeko ospitaleraterako proposamen txostena" ere, biak ere 2015eko lehen seihi-lekoan eginak. Haien kopia erantsi dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko abenduaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

Galdera, armarriak, intsigniak, plakak eta beste objektu batzuk kentzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, armarriak, intsigniak, plakak eta beste objektu batzuk kentzeari buruzkoa. Galdera 2017ko abenduaren 5eko 149. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera egin du (9-17/PES-00251). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak, 2016ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, ikur frankisten errolda onetsi zuen, bai eta ikur horiek kentzeari buruzko gomendioak ere, eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren esku utzi zuen hura Nafarroako Gobernuari aurkeztea.

Nafarroako Gobernuak, 2016ko azaroaren 30eko erabakiaz, ikur frankisten behin-behineko erroldaren jakinaren gainean zegoela adierazi zuen eta hura berretsi zuen, eta onartu egin zituen ikur horiek kentzeko gomendioak. Nafarroako Gobernuaren azaroaren 30eko Erabakia 2017ko urtarrilaren 13ko 9. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ikur frankisten behin-behineko errolda eta ikur horiek erretiratzeko gomendioak argitaratuta, informazio hori Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari igorri zitzaion, bai eta hainbat udal eta kontzejuri ere, erroldan jasotako ikurrak erretiratu zituzten.

Bestalde, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak finantzaketalarro bat ezarri zuen toki entitateentzako 2017ko diru-laguntzen deialdian, ikur frankistak erretiratzeko laguntza ekonomikoa emateko.

Tokiko esparruari dagokionez, 2017an zehar udal bat baino gehiago izan dira beren eremu publikoetatik ikur frankistak erretiratu dituztenak. Batzorde Teknikoak 2017an izan zuen bileran prozesuaren analisi kuantitatibo bat aurkezteko asmoz, udalei eskatu zitzaion beren datuak eguneratu zituzten. Guztiek ez dute oraindik erantzun; hori dela eta, datuak, gaur egun, oraindik ere behin-behinekoak dira, zeren eta komunikazio berriak jaso eta eguneratutako irudi hori osatzeko zain baikaude.

Prozesu horrekin batera, legegintzaldiaren hasieratik, Nafarroako Gobernuak aurrera egin du Gobernuaren eta haren departamentuaren espazio propioetan ikur frankistak erretiratzeko. Diputazioaren Jauregiko gurutze erramuduna erretiratzeko zain gainera, Jauregiko egoitzetako hainbat objektu erretiratu dira, bai eta NAPIren eraikinean zegoen beirate bat ere, gurutze erramuduna zuena, eta Gurutze Plaza Institutuko beste beirate bat ere, arrazoi berarengatik. Une hauetan, Nafarroako Ospitaleguneko beste armari bat, gurutze erramuduna duena, erretiratzeko prozesuan gaude.

Bestalde, zure galderaren bigarren zatian dagokionez, jakitera eman behar dizut ez dela inongo espedienterik hasi entitate publikoei edo jabe partikularrei diru-laguntzak edo laguntzak erretiratzeko. Gure ustez oraindik ere aukera bat badago eragile guztien laguntza eta parte-hartzea lortzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko abenduaren 28an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Galdera, Foruaren Hobekuntzan aitortzen diren eskumenak edukiko balitu trafikoko isunen kontzeptua dela-eta Nafarroari legokiokeen diru-bilketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Foruaren Hobekuntzan aitortzen diren eskumenak edukiko balitu trafikoko isunen kontzeptua dela-eta Nafarroari legokiokeen diru-bilketari buruzkoa. Galdera 2017ko abenduaren 15eko 153. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro

jaunak informazioa eskatu du eskumenak edukiko balitu trafikoko isunen kontzeptua dela-eta Nafarroari legokiokeen diru-bilketari buruz; hain zuzen ere, honako hau jakin nahi du: “Eskumen hori baliatzeak zenbat diru ekarriko luke urtero?”.

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Trafiko Buruzagitzaren bitartez, emandako informazioaren arabera, 2016. urteko diru-bilketa, salaketa noiz jarria den alde batera utzita, 12.076.815,42 eurokoa da.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 9an.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: María José Beaumont Aristu

Galdera, etxebizitzaren erosketarako hipoteka berrien sinatzeak % 13,1 behera egin izanari buruz Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratu dituen datuak azaltzeko azterketei eta arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxebizitzaren erosketarako hipoteka berrien sinatzeak % 13,1 behera egin izanari buruz Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratu dituen datuak azaltzeko azterketei eta arrazoiei buruzkoa. Galdera 2017ko abenduaren 15eko 153. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera

egin du (9-17/PRC-00257) Etxebizitzaren erosketarako hipoteka berrien sinatzeak % 13,1 behera egin izana dela-eta Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratu dituen datuak azaltzeko azterketei eta arrazoiei buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Jabetzaren erregistroetan hilabete bakoitzean inskribatutako hipoteken kopuruak asko aldatzen dira hilabetetik hilabetera; hori dela eta, hileko datuak joera bat adieraz dezakeen arren (halere, hilabete bakarreko datua ez litzateke nahikoa izango), balora daitekeen bakarra urteko datu metatua da.


Hilabetetik hilabetera laginetako datuetan ikusten den dispertsio hori honako taula honetan egiazta daiteke, azken bi urteetako datuekin:

Hilabetea	Hipoteka kopurua	Zenbatekoa (euroak, milakotan)	Aldea, zenbat, %	Aldea, zenbatekoa, %
2015eko ira	350	36.137		
2015eko urr.	238	23.798	-% 32,00	-% 34,15
2015eko aza	265	27.163	% 11,34	% 14,14
2015eko abe	313	35.023	% 18,11	% 28,94
2016ko urt	364	35.526	% 16,29	% 1,44
2006ko ots	349	35.032	-% 4,12	-% 1,39
2016ko mar	294	29.612	-% 15,76	-% 15,47
2016ko api	348	36.230	% 18,37	% 22,35
2016ko maiatza	475	44.527	% 36,49	% 22,90
2016ko eka	387	38.387	-% 18,53	-% 13,79
2016ko uzt	297	33.794	-% 23,26	-% 11,96
2016ko abu	312	32.714	% 5,05	-% 3,20
2016ko ira	367	37.164	% 17,63	% 13,60
2016ko urr	251	25.124	-% 31,61	-% 32,40
2016ko aza	309	31.401	% 23,11	% 24,98
2016ko abe	240	25.117	-% 22,33	-% 20,01
2017ko urt	396	44.144	% 65,00	% 75,75
2017ko ots	306	32.949	-% 22,73	-% 25,36
2017ko mar	382	41.248	% 24,84	% 25,19
2017ko api	279	29.061	-% 26,96	-% 29,55
2017ko mai	373	39.191	% 33,69	% 34,86
2017ko eka	393	42.452	% 5,36	% 8,32
2017ko uzt	299	29.462	-% 23,92	-% 30,60
2017ko abu	426	44.507	% 42,47	% 51,07
2017ko ira	319	32.177	-% 25,12	-% 27,70

Egiaztatzen da nola 2017ko irailean hilabete batetik bestera izan den aldaketa, deigarria bada ere, ez den azken bi urte hauetako muturrekoena: 2015eko urrian eta 2017ko apirilean % 32ko eta % 27ko jaitsierak izan ziren, eta 2017ko abuztuan

(aurreko hilabetean, beraz) % 42,47ko igoera; eta are % 65eko igoera ere 2017ko urtarrilean.

Dispertsio hori hobeki ikus daiteke aurreko datu horiek dauzkan irudi batean:



Urteko zenbaketan, 2017ko lehen bederatzi hilabeteetan eraturako hipoteken datua 2016ko hipoteken datuaren antzekoa da.

	Hipoteka kopurua	Zenbatekoa (euroak, milakotan)
2016	3.193	322.986
2017	3.173	335.191

Eta gogorarazi behar da 2016ko hipoteken guztizko kopurua ia % 6 handiagoa izan zela 2015ekoa baino, 2013an hondoa jo ondoren:

	2012	2013	2014	2015	2016
Egindako hipoteka, EIN					
Hipoteka kopurua	4.095	3.170	3.710	3.769	3.993
Urteen arteko aldea	-% 25,82	-% 22,59	% 17,03	% 1,59	% 5,94
Zenbatekoa (euroak, milakotan)	458.620	345.155	383.504	388.627	404.628
Urteen arteko aldea	-% 31,12	-% 24,74	% 11,11	% 1,34	% 4,12
Batez besteko zenbatekoa (euroak)	111.995,12	108.881,70	103.370,44	103.111,44	101.334,34
Urteen arteko aldea	-% 7,15	-% 2,78	-% 5,06	-% 0,25	-% 1,72

Bestalde, eraturako hipoteken datua etxebizitzaren salerosketa-merkatuaren dinamismoaren adierazle gisa erabiltzen da, eta 2017an, EINen urrira arteko (urria barne) datuekin, ikusten da etxebizitzaren salmenta 2016koaren antzeko parametroetan dagoela:

(EIN)	Etxebizitzak, guztira		Etxebizitza berria		Etxebizitza erabilia		Etxebizitza librea		Etxebizitza babestua	
	Zenbakia	Urtearteko %	Zenbakia	Urtearteko %	Zenbakia	Urtearteko %	Zenbakia	Urtearteko %	Zenbakia	Urtearteko %
2007	9592		6115		3477		8419		1173	
2008	6399	-% 33,29	4204	-% 31,25	2195	-% 36,87	5138	-% 38,97	1261	% 7,50
2009	5033	-% 21,35	3085	-% 26,62	1948	-% 11,25	4118	-% 19,85	915	-% 27,44
2010	5861	% 16,45	3568	% 15,66	2293	% 17,71	4629	% 12,41	1232	% 34,64
2011	4496	-% 23,29	2379	-% 33,32	2117	-% 7,68	3115	-% 32,71	1381	% 12,09
2012	3993	-% 11,19	2091	-% 12,11	1902	-% 10,16	2952	-% 5,23	1041	-% 24,62
2013	3865	-% 3,21	1642	-% 21,47	2223	% 16,88	3039	% 2,95	826	-% 20,65
2014	4386	% 13,48	1845	% 12,36	2541	% 14,30	3248	% 6,88	1138	% 37,77
2015	4286	-% 2,28	1121	-% 39,24	3165	% 24,56	3575	% 10,07	711	-% 37,52
2016	4635	% 8,14	1088	-% 2,94	3547	% 12,07	3915	% 9,51	720	% 1,27
2017	4364		938		3426		3691		673	

2017ko urrira arte.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko abenduaren 21ean.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiko erabakia, zeinaren bidez behin-behineko langileen ordainsariak Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko C mailako langile funtzionarioen eta kontratudunen proportzio berean igoko baitira.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, bestek beste honako hau ERABAKI ZUEN:

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek Legebiltzarreko Mahaiari eskatu diote, 2018ko otsailaren 8an egindako idazki baten bidez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko C mailako langile funtzionarioen eta kontratudunen proportzio berean igo daitezen behin-behineko langileen ordainsariak, Langileen Batzordearen eta Mahaiaren ordezkariak 2017tik 2019ra bitarteko urteetarako sinatutako hitzarmenaren babesean.

Eskaera hori dela-eta, Zerbitzu Juridikoek txosten bat egin dute, eta txostenak ondorioztatzen du Mahaiak autonomia daukela behin-behineko langileen ordainsariak finkatzeko; Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak ere txostena egin du, ondorio ekonomikoak baloratzen dituena.

Horiek horrela, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek egindako eskaria onartzea, halako moduan non Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko C mailako langile funtzionarioen eta kontratudunen proportzio berean igoko baitira behin-behineko langileen ordainsariak, Langileen

Batzordearen eta Mahaiaren ordezkariak 2017tik 2019ra bitarteko urteetarako sinatutako hitzarmenaren babesean.

2. Kreditu-gehikuntza onestea honako partida hauetan, Legebiltzarren Gastu-aurrekontu indardunaren "I. kapituluko funtsa" izeneko 16040 partidaren kargura: 11000-Lehendakaritza Kabineteko behin-behineko langileen ordainsariak; 11100-Beste hautetsi batzuen behin-behineko langileen ordainsariak (hamahiru laguntzaileentzako eta Mahaiko kideen idazkariarentzako kredituak barne); eta 16000-Langileen Gizarte Segurantza. Kreditu-gehikuntza 2.886,75 €, 32.030,01 € eta 10.442,71 €-koa izanen da, hurrenez hurren.

3. Behin-behineko langileen 2018rako ordainsari gordinak –Mahaiaren 2018ko urtarrilaren 15eko Erabakiaren bidez onetsiak– aldatzea. Hona zenbatekoak:

– Lehendakariaren idazkaria: 37.863,42. euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 30.447,48. euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 30.447,48. euro.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuak “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SMP” izeneko sozietateko administrazio kontseilurako izendatu beharreko hiru kideak hautatzea.

HAUTAGAI-PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko martxoaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak idazki bat aurkeztu dute, zeinaren bidez eskatzen baitute Nafarroako Parlamentuak “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SMP” izeneko sozietateko administrazio kontseilurako izendatu beharreko hiru kideak hautatzeko hautagai-proposamenak aurkezteko epea luza dadin.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikularekin bat, hona erabakia:

1. Nafarroako Parlamentuak “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SMP” izeneko sozietateko administrazio kontseilurako izendatu beharreko hiru kideak hautatzeko hautagai-proposamenak aurkezteko epea **2018ko martxoaren 19ko 11:30ak** arte luzatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

